

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Kondentsazioa



Igor Estankona



Lainoa janez

JUAN KRUZ IGERABIDE

Erein, 2015

Lainoa janez-janez ibiliko bagina legez goaz bizitzan aurrera Igerabideren poema liburu fin eta xamur honen orrialdeak zeharkatuz, euri fin bat sentituz, denbora. “Oren guziek dute poeta kolpatzen, azkenekoak du hobirat egortzen”. Bitartean hausnarketa eta sentitze bat da mundua: “Euria ari du hilerrian/ eta zu ez zaude zutik”.

Busti-busti egingo gaituen zirimirira ateratzea bezalakoa da *Lainoa janez* honetan paseatzea; ez dauka berba bat bestea baino altuago esana, ez dauka mutur bat findu gabea, pisu bat alferrik, errepikapen bat erredundantea izango dena. Finean, idazlearen ofizioaz gozatzeko liburu horietako bat da. *Existe dios al noroeste* oteizarra barruntatuko balu legez doa Igerabide heriotzaren eta bizitzaren muga den euriaren ertzetik, eskutik eroango zaitu zu ere bidaia atsegin tristean: “eta udazkena hanka-puntetan igarotzen da/ gatzaina-morkotsen gainetik,/ izan-nahia ziztatuz/ izan gabe garenoi”.

Poesia existentzial honen bertute nagusia da, nire aburuz, zabala eta detailez betea den munduari sano lotua dagoela. Ez da diskurtso eta teoria zalea idazlea: “Neskatoa txirristan dator/ euririk gabeko errealitatera;/ etxeko lanak ditu mahai gainean./ Hortxe jaio zitekeen poeta bat”. Eta izan zitekeenaren eta gertatu denaren arteko zidorretatik ibiltzea bera bihurtzen da horrela helburu. Bizitza bizitzeko dela da mezua. Beraz filosofikotik baino gehiago dauka *Lainoa janez* honek bizizaleatik. Edertasun distira bat, hitzek oharkabean egin dioten jokoa, zabalik utzitako poema-bukaera bat... heriotzari iskin egin eta beti bizitzari kantatzeko

prest, ezerez nihilista baino askoz argiagoa da Igerabideren euri-egun hau. Eta nahiz eta sinetsi egun batean hilen garela hutsean eroriak ezerezean amilduak hauts bihurtuko garela, oraindik maitaraziko dizkizu bere argi-ilunak, bere eguneroko plazer eta bihotz-minak Maisuki marrazten du natura bat egin bere aldartearekin, metaforak baino perfektuagoak diren argazkietan: “Han, urrunean, itsasoa/ olatuen mende./ Ez dago kairik amodioarentzat;/ noraeza baino ez./ Ez dakit alaba kontsolatzen/ maiteuzte baten ondoren”. Izan ere, Juan Kruz Igerabidek lortu du depurazio bat itzela, lanak eta barne-aztertze zintzoak emana urterik urte, liburuz liburu. Giharrean ukituko zaitu halabeharrez, estetikoki zein esanahiaren aldetik, *Lainoa janez* honek ere: bustiko zara goitik behera erdi behe laino erdi euri langar ederrean. ■

Juan Kruz Igerabide
idazle eta poeta (Aduna, 1956).

